



Industria politikak: noren erreminta?

Azken urteotan, *industria politikaren* kontzeptua hainbat mailatan indarrez berragertu da. Neoliberalismoaren mailua izandako erakundeak, Nazioarteko Diru Funtsak, gaur egun zera azpimarratzen du: merkatuek baliabideak modu eraginkorrean esleitzeko eta arazo horiek konpontzeko gobernuek euren industria-politikan norabide aktiboagoa hartzeko presioa jasan dutela, pandemiak, tentsio geopolitikoen gorakadak eta krisi klimatikoen ondorioz sortutako kezkak direla eta. Arazo horiek direla medio, gaur egungo edozein proposamen ekonomikok, arrakasta politikoa izateko, bi hitz horiek barneratuta izan behar ditu. Ekonomia ziurgabetasunaren aurrean, euskarri bilakatu da *industria politika*.

Definizioaren inguruan, badago funtsezkoa den agente bat: gobernuak. Estatuaren parte hartzea ekonomian ere azpimarratzen dute, horren egitura edo norabidea aldatzeko. Oinarri horiek hartuta, akademikoek gobernantza barneratzen dute, hau da, aktore gehiagoren parte hartze aktiboa. Laburbilduz, industria politikak helburu du merkatuaren akatsak zuzentzea eta funtsezko sektoreetan ahaleginak koordinatzea. Produktibitatea, berrikuntza eta lehia-kortasuna hobetzera bideratuta dago. Eta epe luzeko helburuak ditu, garapen iraunkorra eta gizarte-ongizatea barne.

Euskal Herrian, zenbait industria politika ditugu. Alde batetik, gobernu au-

Galdera da ea posible den langile klasearen interesei erantzungo dien industria politika bat sortzea, baita industria gobernantza alternatiboa sustatuko duen langile politika bat ere

tonomikoen (EAEkoak eta Nafarroako Gobernuak) egindakoak. Euskal Herri Kontinentalean, aldiz, Frantziako eta Akitania Berriko industria politika orokorrekin zuzentzen dute, berezko industria estrategiarik gabe. Horien gainera, Europar Batasunean zehazten diren politikak gidaliburua dira. Agerikoa da ez dagoela Euskal Herri mailako politika bateraturik, horrek dakarren kontraesan eta bikoiztasunekin.

Definizioari berriro helduta, ezaugarri ohikoenak zirriborrotuta, helburua langile klaseko ikuspuntutik kapitalismoa gaintzea bada, beharrezkoa da kontzeptua bera birpentsatzea. Gobernuak (edo estatua) langileen interesen babeslea al da? Estatuaren erantzukizuna lana eta kapitalaren arteko bitartekari-



ENDIKA ALABORT
AMUNDARAIN
EKONOMIALARIA

riarena egitea da? Sakontasunez erantzuteko galderak dira, eztabaida pizten dutenak. Saihesbidea hartuko dut, langilearen klase autonomiari helduta eta Internazionalaren leloa berreskuratuta: langileen emantzipazioa beren lana izan behar da.

Galdera da ea posible den langile klasearen interesei erantzungo dien industria politika bat sortzea, baita industria gobernantza alternatiboa sustatuko duen langile politika bat ere, kapitalismoa gaintzeko helburua duena. Ikuspegi horrek klase independentzia eskatzen du, baita gobernuaren eta botere ekonomiko nagusien benetako autonomia ere. Zentzu horretan, langile erakundeak diren ekonomia sozial eraldatzaileak eta erakunde sindikalen lanak berebiziko garrantzia dute.

Politika sindikalaren kasuan, aukera du industriaren langileen kontrolaren eta kudeaketaren alde egiteko. Noski, hitzarmen sozialeko sindikalismoa alde batera uztea eskatuko luke, helburuak lausotzen dituen hitzarmenean erori gabe.

Industria politika inklusiboago eta demokratikoago baterako mugimendu horrek erronka ugari ditu aurrez aurre, eta erronka horien artean nabarmentzen dira, batetik, ezarritako interesen erresistentzia eta, bestetik, ikuspegi horri eutsiko dion esparru teoriko eta praktikoa sendo bat garatzeko beharra. Industria politikak zabaltzen diren garaian, bide autonomo hori lantzea erronka eta beharra da. ●